

# 2020

TXOSTENA MEMORIA

elkarkidetza
PENTSIOAK
LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE
EPSV DE EMPLEO PREFERENTE

COVID-19aren pandemiak eragin handia izan du 2020ko ekitaldian; planeta geldiaraztea lortu zuen, eta horren ondorioak oraindik ere oso presente daude osasun, gizarte eta ekonomia mailan. Elkarkidetzak berehala jarri zuen abian Kontingentzia Plan bat, kutsadurei aurrea hartzeko eta kudeaketa-taldea nahiz bazkideak babesteko. Ahalegin handia egin da, pertsonei kalterik ez eragiteko, eta, aldi berean, zerbitzu eta funtzio guztiak bermatu dira, lanean kalitate handia eta arreta pertsonalizatua eskainiz.

Jarduera handiko urtea izan da, finantza-aktiboen prezioen beherakadekin merkatuetan sortu diren aukerak aprobetxatzen saiatzeko. Urteko lehen hilabeteetan, gobernuko eta korporazioko errenta finkoko bonuak erosi ziren, zenbateko garrantzitsuetan. Ekitaldian zehar, errenta aldakorreko posizioak gehitu ziren, eta urte hasieran nahiko posizio defentsiboa genuen.

Lehen hilabete oso zailen ondoren, errentagarritasunaren azken emaitza % 2,18koa izan da, eta azken 10 urteetako urteko errentagarritasuna, % 4,31koa.

Ondarearen % 16 Euskadin inbertituta dago. Horrela, aberastasuna sortzen eta ingurune hurbilena garatzen laguntzen saiatzen da Erakundea. Euskadin egindako inbertsio horren diru-sailik handiena euskal jaulkitzaile publikoen zor-tituluetan kokatuta dago. Enpresa-sustapenaren arloan, Elkarkidetzak Geroa BGAErekin batera parte hartzen du % 50ean ORZA AIEn, euskal enpresa-ehuneko kotizatu gabeko sozietateetan inbertitzeko eratu baitzen, bai eta TALDEA SCRn ere.

Elkarkidetzak ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak eta gobernu korporatiboko irizpideak hartzen ditu kontuan inbertsio-prozesuan, finantza-irizpideez gain, errentagarritasun-arrisku binomioari epe luzera laguntzeko helburuarekin.

Taldearen heldutasunaren ondorioz, prestazioak ekarpenak baino handiagoak dira lehen aldiz. Borondatezko erretiroak urtean eragindako prestazio guztien % 54 dira. Erretiroagatik jasotako prestazioaren batez bestekoa urtean 2.767,64 €-ko biziarteko pentsioa izan da, 30.001,85 €-ko kapitalarekin batera.

Urte honetan, Estatutuen eta Prestazioen Araudiaren aldaketari ekin zaio, Erakundearen iraunkortasuna eta etorkizuneko konpromisoak etengabe aztertu eta ebaluatuta.

Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen pentsioa kalkulatzeko interes-tasa teknikoa aldatzea (% 0,50), bai eta mozkinen partaidetzaren mekanismoa berriz diseinatzea ere.

Horrekin batera, 2020-2023 aldirako Entitatearen Batzarra berritu zen, eta Gobernu Batzordearen eraketa berria onartu zen. Hala, Gobernu Onaren araudia aplikatuta, Gobernu Batzordearen gaitasunaren eta zintzotasunaren ebaluazioari buruzko txostena aurkeztu zuen aurrez, onartua izan zedin.

Gainera, 2020an arriskuen kudeaketaren metodologia berrikusi eta hobetu zen, bai eta Gobernu Onaren Politikari, Arriskuen Kudeaketari eta Erakundearen araudia betetzeari buruzko testu bategina egokitu ere.

Gorabehera guztiak gorabehera, pozik gaude lortutako emaitzarekin, eta pentsa genezakeena baino hobea izan dela uste dugu, oro har.

El ejercicio de 2020 se ha visto impactado radicalmente por la Pandemia del COVID-19, que consiguió paralizar el planeta, y cuyas consecuencias a nivel sanitario, social y económico todavía están muy presentes. Desde Elkarkidetza se puso rápidamente en marcha un Plan de Contingencia para la prevención de contagios y la protección tanto del equipo de gestión como de los socios y socias, con un gran esfuerzo que nos ha permitido evitar daños a las personas, al tiempo que se han garantizado todos los servicios y funciones, con una alta calidad en el desempeño y la atención personalizada.

Ha sido un año de mucha actividad, para tratar de aprovechar las oportunidades que han surgido en los mercados con las caídas de los precios de los activos financieros. Durante los primeros meses del año se realizaron compras de bonos de renta fija gubernamental y corporativa por importes relevantes. A lo largo del ejercicio se fueron añadiendo posiciones en renta variable, donde partíamos a principios de año de una posición relativamente defensiva.

El resultado final de rentabilidad, tras unos primeros meses muy complicados, ha sido del 2,18 % y la rentabilidad anualizada de los últimos 10 años se sitúa en 4,31 %.

Un 16 % del patrimonio está invertido en Euskadi. De esta manera la entidad trata de ayudar a la creación de riqueza y al desarrollo del entorno más cercano. La partida más grande de esta inversión en Euskadi está colocada en títulos de deuda de emisores públicos vascos. En el ámbito de la promoción empresarial, Elkarkidetza participa junto con Geroa EPSV, en un 50 % en ORZA AIE, que fue constituida para la inversión en sociedades no cotizadas del tejido empresarial vasco, así como en TALDE SCR.

Elkarkidetza tiene en cuenta en su proceso de inversión aspectos o criterios medioambientales, sociales y de gobierno corporativo además de los criterios financieros, con un objetivo de contribución a largo plazo al binomio rentabilidad-riesgo.

Fruto de la maduración del colectivo, por primera vez, las prestaciones son superiores a las aportaciones. Las jubilaciones voluntarias suponen un 54 % del total de las prestaciones causadas en el año. La prestación percibida por jubilación, de media, ha supuesto una pensión vitalicia anual de 2.767,64€ junto con un capital de 30.001,85€.

Durante este año se abordó la modificación de los Estatutos y Reglamento de prestaciones, como resultado del análisis y evaluación permanente de la sostenibilidad de la Entidad y de sus compromisos futuros. La Junta de Gobierno acordó por unanimidad la modificación del tipo de interés técnico para el cálculo de la pensión, al 0,50 % así como el rediseño del mecanismo de la participación en beneficios.

Asimismo, se renovó la Asamblea de la Entidad para el periodo 2020-2023 y se aprobó la nueva constitución de la Junta de Gobierno, que, por aplicación de la normativa del Buen Gobierno, previamente presentó para su aprobación un informe sobre la evaluación de la aptitud y honorabilidad de la Junta de Gobierno.

Además, el año 2020 se caracterizó por trabajar en la revisión y mejora de la metodología de la gestión de riesgos, y en la Adecuación del Texto Refundido de Política de Buen Gobierno, Gestión de riesgos Y Cumplimiento normativo de la Entidad.

A pesar de todos los avatares, mostramos la satisfacción del resultado obtenido, siendo partícipes de la impresión generalizada de que el resultado obtenido ha sido mejor de lo que podíamos haber pensado.



**Sainz de la Maza Arrola, Karmelo**
Presidentea / Presidente



**Aldasoro Iturbe, Amaia**
Presidenteordea / Vicepresidenta



## BAZKIDE TALDEA

Euskal 464 erakunde eta enpresa publiko daude Elkarkidetzan (zerrenda, sartutako erakundeen atalean agertzen da). 2020an, Bilbao Orkestra Sinfonikoari eta Tolosaldeko Mankomunitateari alta eman izana nabarmendu dezakegu, bai eta instituzioek hainbat zerbitzu bere baitan hartzeko prozesuak aurrera jarraitzen duela.

### Taldearen bilakaera

Bazkideen kolektiboari dagokionez, 2020an, Elkarkidetzak 842 alta berri sartu ditu Erakundean eta harremana etenda zeuden 135 pertsonek ekarpenak egin dituzte berriro.

## COLECTIVO ASOCIADO

En Elkarkidetza están integradas 464 instituciones y empresas públicas vascas (el listado aparece en el apartado de Instituciones incorporadas). En el año 2020 podemos destacar que se han dado de alta la Bilbao Orkestra Sinfonikoa y Tolosaldeko Mankomunitatea, y continua el proceso de reabsorción de diferentes servicios por parte de las instituciones.

### Evolución del colectivo

En lo relativo al colectivo de personas asociadas, durante el año 2020, Elkarkidetza ha incorporado 842 altas nuevas a la Entidad, y han vuelto a realizar aportaciones 135 personas que estaban en suspenso.











## Taldearen piramidea / Pirámide del colectivo




## 2020an eragindako prestazioak

Urtean 945 pentsiodun gehiago izan dira, horrela banatuta:

## Prestaciones causadas durante el año 2020

Los nuevos pensionistas del año son 945, su desglose es:




Pentsiodun berrien % 50ek errentan kobratu dute, osorik edo zati batean. Erretiroaren prestazioan oinarrituta, talde honek batez beste urtean 2.767,64 €-ko biziarteko pentsioa eta 30.001,85 €-ko kapitala kobratu ditu.

Erretiroak honela banatzen dira: 516 borondatezkoak eta 187 derrigorrezkoak. Borondatezko erretiroak urtean eragindako prestazio guztien % 54 dira.

Eragindako prestazioen % 50 ez dira gutxieneko pentsiora iritsi; horregatik da garrantzitsua ekarpenak etenik gabe eta denbora luzez egitea.

El 50 % de los nuevos pensionistas han cobrado en renta, total o parcialmente. Centrándonos en la prestación de jubilación, este colectivo de media ha cobrado una pensión vitalicia anual de 2.767,64€ y un capital de 30.001,85€.

Las jubilaciones se desglosan en 516 voluntaria y 187 forzosas. Las jubilaciones voluntarias suponen un 54 % del total de las prestaciones causadas en el año.

El 50 % de las prestaciones causadas no han alcanzado la pensión mínima, de ahí la importancia de realizar aportaciones sin interrupciones y durante un período largo.

## Inkesta

**“Elkarkidetza gomendatuko zenuke?”**

2020an egindako inkestan, babes-maila % 94,59koa izan zen aktiboen taldean, % 92,47koa pasiboen taldean, eta % 97,84koa, berriz, espedientea tramitatu berria duten pasiboen taldean.

## Encuesta

**¿Recomendaría usted Elkarkidetza?**

El grado de apoyo obtenido en la encuesta realizada en 2020 es del 94,59 % del colectivo activos, de un 92,47 % del colectivo de pasivos, y del 97,84 % del colectivo de pasivos tras realizar la tramitación de su expediente.

## Ekarpenen eta prestazioen bilakaera

Grafikoan, erretiro aurreratuen ondorioz prestazioek azken bi urteetan izan duten hazkundea ikus dezakegu. Kolektiboaren heldutasunaren ondorioz, prestazioak ekarpenak baino handiagoak dira, lehen aldiz.

## Evolución aportación y prestaciones

En el gráfico podemos observar el crecimiento de las prestaciones durante estos dos últimos años motivado por las jubilaciones anticipadas. Fruto de la maduración del colectivo, por primera vez, las prestaciones son superiores a las aportaciones.




## Prestazioak eta beste ordainketa batzuk

## Prestaciones y otros abonos




## KUDEAKETA EKONOMIKOA

### Finantza-merkatuen bilakaera 2020an

2020. urtea oso nahasia izan da finantza merkatuetan, koronabirusak eragindako aurrekaririk gabeko krisiaren ondorioz.

### Covidaren lehen olatua

Urte hasieran, Txinak ofizialki jakinarazi zion OMEri Covid-19ak eragindako infekzioa. Eremu kaltetuena, Wuhan, konfinatu egiten zuten, eta mundua albisteen bilakaeraren zain zegoen.

### Erantzun monetario eta fiskal koordinatuak

2008ko finantza-krisi handian ez bezala, gobernuek eta banku zentralek berehala ulertu zuten zerga- eta diru-politikako ezohiko neurriak ezarri behar zirela ekonomiaren erabateko beherakada saihesteko.

### Ekonomiak berriro irekitzea eta bigarren olatua

Urtearen erdialdera, kutsatzeen datuek hobekuntza nabarmena erakutsi zuten, estatuak konfinamenduak altxatzen hasi ziren eta berriz hasi zen jarduera.

### Txertoak

Txertoen inguruko saiakuntzen emaitzak onak izan ziren, eta epe errekorrean ditugu erakunde arautzaileek onartutako hainbat txerto.

### Kutsatzeen hirugarren olatua

Oso larria da Europan, eta baikortasun hori lausotzen ari da. Hala, suspertzeko itxaropenak atzeratu egin dira zertxobait.

## GESTIÓN ECONÓMICA

### Evolución de los mercados financieros en 2020

El año 2020 ha sido muy convulso en los mercados financieros, debido a la crisis sin precedentes provocada por el coronavirus.

### Primera ola del covid

A comienzos de año China notificó oficialmente a la OMS la infección por un nuevo virus, el covid-19. La zona más afectada, Wuhan, se confinaba y el mundo asistía expectante a la evolución de las noticias.

### Respuestas monetarias y fiscales coordinadas

A diferencia de lo ocurrido en la gran crisis financiera de 2008, los Gobiernos y los Bancos Centrales entendieron rápidamente la necesidad de implantar medidas extraordinarias de política fiscal y monetaria para evitar un desplome absoluto de la economía.

### Reaperturas de las economías y segunda ola

A mediados de año los datos de contagios mostraron una clara mejoría, los Estados empezaron a levantar los confinamientos y la actividad se reanudó.

### Vacunas

Los resultados de los ensayos sobre las vacunas fueron satisfactorios y en un plazo de tiempo récord ya existen varias vacunas aprobadas por los organismos reguladores.

### La tercera ola de contagios

Muy grave en Europa, está empañando algo este optimismo. Las expectativas de recuperación se retrasan algo en el tiempo.

## 2020Ko jardueraren laburpena

Jarduera handiko urtea izan da, finantza-aktiboen prezioen beherakadekin merkatuetan sortu diren aukerak aprobetxatzen saiatzeko.

Urteko lehen hilabeteetan, gobernuko eta korporazioko errenta finkoko bonuak erosi ziren, zenbateko garrantzitsuetan.

Ekitaldian zehar, errenta aldakorreko posizioak gehitu ziren; urte hasieran, posizio defentsibo samarra genuen. Txertaketa-prozesuek aurrera egin eta ekonomiek berriro ireki ondoren ekonomia suspertzeko itxaropenak, zerga eta diru pizgarri izugarriekin batera, arrisku-aktiboek nahiko ondo jokatzen jarrai dezaketela pentsarazten digu.

Era berean, aktibo alternatiboetan posizioak hartzeko politikarekin jarraitu zen; hala, azpiegituretan egindako inbertsioaren pisua handitu egin da, adibidez.

Erosketa horiek guztiak likideziaren atala murriztearen kontura egin dira, urte hasieran oso maila altuan baitzegoen, zuhurtziagatik.

## Resumen de actuación en 2020

Ha sido un año de mucha actividad, para tratar de aprovechar las oportunidades que han surgido en los mercados con las caídas de los precios de los activos financieros.

Durante los primeros meses del año se realizaron compras de bonos de renta fija gubernamental y corporativa por importes relevantes.

A lo largo del ejercicio se fueron añadiendo posiciones en renta variable, donde partíamos a principios de año de una posición relativamente defensiva. La expectativa de una recuperación económica una vez que los procesos de vacunación avancen y las economías reabran, junto con los ingentes estímulos fiscales y monetarios, nos hacen pensar que los activos de riesgo pueden seguir comportándose relativamente bien.

Asimismo, se continuó con la política de toma de posiciones en activos alternativos. Así, por ejemplo, se ha aumentado el peso de la inversión en infraestructuras.

Todas estas compras se han hecho a costa de reducir el apartado de liquidez, que por prudencia estaba a principios de año en niveles muy elevados.

## Ondarearen banaketa

## Distribución patrimonio








## Inbertsioak Euskadin/Zuzeneko inbertsioak

Ondarearen % 16 Euskadin inbertitu da. Erakundeak aberastasuna sortzen eta ingurune hurbila garatzen lagundu nahi du. Euskadin egindako inbertsio horren partidarik handiena euskal jaulkitzaile publikoen zor tituluetan dago.

Enpresak bultzatzeko arloan, Elkarkidetzak % 50eko partaidetza du ORZA AIEn, eta euskal enpresa-ehunaren sozietate ez kotizatuetan inbertsioak egiteko eratu zen.

## Inversión en Euskadi/Inversiones directas

Un 16 % del patrimonio está invertido en Euskadi. De esta manera la entidad trata de ayudar a la creación de riqueza y al desarrollo del entorno más cercano. La partida más grande de esta inversión en Euskadi está colocada en títulos de deuda de emisores públicos vascos.

En el ámbito de la promoción empresarial, Elkarkidetza participa en un 50 % en ORZA AIE, que fue constituida para la inversión en sociedades no cotizadas del tejido empresarial vasco.

## Inbertsio sozialki arduratsua

Inbertsio-prozesuan, Elkarkidetzak ingurumenarekin, gizartearekin eta erakundearen gobernuarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen ditu, finantza irizpideez gain, errentagarritasun-arriskua binomioari epe luzerako ekarpena egiteko asmoz.

## Inversión socialmente responsable

Elkarkidetza tiene en cuenta en su proceso de inversión aspectos o criterios medioambientales, sociales y de gobierno corporativo además de los criterios financieros, con un objetivo de contribución a largo plazo al binomio rentabilidad-riesgo.

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LIKIDEZIA LIQUIDEZ | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| ERRENTA FINKOA RENTA FIJA | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| ERRENTA ALDAKORRA RENTA VARIABLE | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| ARRISKU KAPITALA CAPITAL RIESGO | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| HIGIEZINAK INMUEBLES | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| AZPIEGITURAK INFRAESTRUCTURAS | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| BESTELAKO ALTERNATIBOAK ALTERNATIVOS OTROS | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |
| EGITURATUAK ESTRUCTURADOS | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ELKARKIDETZA | n.d. | E | D | C | B | A | A+ |

## Errentagarritasuna

2020an, Elkarkidetzak % 2,18ko errentagarritasuna izan du. Horren arabera, azken 10 urteetan errentagarritasun urtekotua % 4,31koa da.

## Rentabilidad

En 2020 la rentabilidad de Elkarkidetza ha sido 2,18 %. Con este dato, la rentabilidad anualizada de los últimos 10 años se queda en 4,31 %.

## Pentsio-funtsekin konparaketa

Elkarkidetzaren % 2,18ko errentagarritasunak nabarmen gainditu du 2020ko **enplegu-planen** batez bestekoa, % 0,41ekoa izan baita. Balio igoera horri esker, azken 15 urteotan lortutako errentagarritasun urtekotua % 4,08koa da, eta, hortaz, aise gainditzen du enplegu funtsek lortutako batezbestekoa.

## Comparación con fondos de pensiones

La rentabilidad de Elkarkidetza del 2,18 % ha batido claramente a la obtenida de media por los **planes de empleo** en 2020 que ha sido de 0,41 %. Con esta revalorización, la rentabilidad anualizada lograda en los últimos 15 años se sitúa en el 4,08 %, muy por encima de la media lograda por los fondos de empleo.

| | 15 urte años | 10 urte años | 5 urte años | 3 urte años | 1 urte año |
|---|---|---|---|---|---|
| ELKARKIDETZA | 4,08 % | 4,31 % | 3,52 % | 3,07 % | 2,18 % |
| FUNTSEN batez bestekoa Media FONDOS | 2,58 % | 3,12 % | 1,67 % | 1,23 % | 0,41 % |
| POSIZIOA POSICIÓN | 22/781 | 73/1048 | 68/1138 | 83/1180 | 240/1220 |
| KUARTILA CUARTIL | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |

## Inflazioarekin konparaketa

Azkenik, Elkarkidetzaren errentagarritasunak 3, 5, 10 eta 15 urteko inflazioa ere erraz gainditzen du.

## Comparación con inflación

Por último, la rentabilidad de Elkarkidetza supera también de forma holgada la inflación a 3, 5, 10 y 15 años.






## Diseinu teknikoa/hamar urteko prospektiba

Azterketa horretan oinarrituta, 2020ko apirilaren 1ean Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zituen Erakundeak dituen arriskuak minimizatzeko zenbait neurri, eta aldagai teknikoak merkatuen errealitatera egokitu zituen. Alde horretatik, pentsioak kalkulatzeko interes teknikoa eta kolektiboen mozkinetako partaidetzaren muga aldatu dira (12.1 artikulua eta Hamargarren Xedapen Iragankorra):

1. Pentsioa kalkulatzeko interes-tasa teknikoa: % 0,50
2. Mozkinetako partaidetza gerora mugatzea: pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den interes teknikoa etorkizunean espero den % 2,5eko errentagarritasuna baino txikiagoa duten kolektiboentzat izango da, eta progresiboa izango da, betiere muga etorkizunean espero den errentagarritasunaren eta pentsioa kalkulatzeko erabiltzen den interes teknikoaren arteko aldea bada.

Hartutako erabakiek prestazioen erregelamendua aldatzea ekarri zuten, eta Erakundearen webgunean argitaratu zen.

Halaber, Gobernu Batzordeak mozkinetako partaidetza ez banatzea proposatu zion Batzarrari. Erakundearen 2020ko funtsezko datuek errentagarritasun oso negatiboa eta gutxieneko kaudimena erakusten zuten. Entitatearen kaudimena Prestazioen Erregelamenduan eskatutako % 10etik behera zegoen, eta, beraz, ezin izan zen mozkinetako partaidetza banatu.

## Diseño técnico/prospectiva diez años

En base a su análisis, la Junta de Gobierno del 1 de abril de 2020 acordó, por unanimidad, una serie de medidas encaminadas a minimizar los riesgos a los que se expone la Entidad y adecuó las variables técnicas a la realidad de los mercados. En este sentido, se han modificado el interés técnico para el cálculo de las pensiones y el límite de la participación en beneficios de los diferentes colectivos (artículo 12.1 y Disposición Transitoria Décima):

1. Tipo de interés técnico para el cálculo de la pensión: 0,50 %
2. Limitar a futuro la participación en beneficios: se destinará a los colectivos cuyo interés técnico utilizado en el cálculo de su pensión sea inferior a la rentabilidad futura esperada 2,5 % y será progresiva, manteniéndose siempre que el límite sea la diferencia entre la rentabilidad futura esperada y el interés técnico utilizado en el cálculo de la pensión.

Los acuerdos adoptados implicaron una modificación del Reglamento de prestaciones, que fue publicado en la página web de la Entidad.

Asimismo, la Junta de Gobierno propuso a la Asamblea no proceder a distribuir la participación en beneficios. Los datos fundamentales de la Entidad en 2020 mostraban una rentabilidad fuertemente negativa y una solvencia en mínimos. La solvencia de la Entidad se encontraba por debajo del 10 % requerido en el Reglamento de prestaciones, por lo que no procedió distribuir la participación en beneficios.





## Pentsiodunen hornidura matematikoa 2020/12/31

Etorkizuneko konpromisoak etengabe ebaluatzeko konpromisoan oinarrituta, pentsiodunen hornidura matematikoaren kalkuluan honako hau nabarmendu behar da:

- % 2,01eko interes teknikoa aplikatu da, merkatuaren errentagarritasun-aurreikuspenekin bat egiteko.
- biziraupen-taula berrien bizi-itxaropenaren erdia sartu da.

## Provisión matemática de pensionistas 31/12/2020

En base al compromiso de evaluación permanente de los compromisos futuros hay que destacar que en el cálculo de la provisión matemática de pensionistas:

- se ha aplicado un interés técnico del 2,01 %, en aras a confluir con las previsiones de rentabilidad del mercado.
- se ha incluido la mitad de la esperanza de vida de las nuevas tablas de supervivencia.

## Estatutuak eta prestazioen erregelamendua aldatzea

**Estatutuen** testu bategina: 6, 27, 38, 39, 40.5, 48 eta 49 artikuluak aldatzea.

**Prestazioen Erregelamenduaren** testu bategina, 2020ko apirilaren 10ean indarrean jarria: 7, 10, 11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 12.1 eta 12.3 artikuluak eta hamargarren xedapen iragankorra aldatzea.

Eguneratutako testuak webgunean daude.

## Modificación de los estatutos y reglamento de prestaciones

Texto refundido de los **Estatutos**: modificación de los artículos 6, 27, 38, 39, 40.5, 48 Y 49.

Texto refundido del **Reglamento de prestaciones**, que entró en vigor el 10 de abril de 2020: modificación de los artículos 7, 10, 11.1, 11.2, 11.3, 11.4, 12.1, 12.3 y Disposición Transitoria Décima.

Los textos actualizados se encuentran en la Web.

## Erakundearen gobernu-organoak berritzea 2020-2023 aldirako

Erakundearen Estatutuen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde publikoek eta zentral sindikalek zegozkien ordezkariak izendatzeko prozesuari ekin zioten 2019. urtearen amaieran.

2020ko abenduaren 18ko Gobernu Batzordean, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak Gobernu Batzordearen gaitasunaren eta zintzotasunaren ebaluazioari buruz egindako txostena berrestea erabaki zen.

## BESTE JARDUERA-ILDO BATZUK

Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Europako Elkarteko (SPPEEE) kide gisa eta Zuzendaritza Kontseiluan zein Idazkaritza Nagusian ordezkariak edukita, Elkarkidetzak lehen eskuko harremana eduki ahal izan du Europan pentsioen alorrean egiten ari diren guztiarekin.

Azaroan, **UNE-ISO/IEC 9001:2015 araua berriz egiaztatzeko ikuskapena** egin da, Elkarkidetza BGAEaren Kalitatea Kudeatzeko Sistema. Bertan, erreferentziazko arauan zehaztutako betekizunen betetze-maila ebaluatu zen, eta emaitza ona izan zen. Bureau Veritasek adierazi zuen sistema heldua dela, praktikoa, eta ondo ezarria dagoela. Ezadostasunik gabe lortu zen.

Gainera, 2020an, **arriskuen kudeaketaren** metodologia berrikusten eta hobetzen lan egin zen, bai eta testu bateginaren egokitzapenean ere: **Gobernu Onaren Politika, Arriskuen Kudeaketa eta Araudia Betetzea**. 2020ko abenduaren 18ko Gobernu Batzordean aho batez onartu zen testu bategin berria.

Esan bezala, aurten ahalegina egin da arriskuen kudeaketan, eta Kudeaketa Aurreratuaren Batzordean (Erakundearen arlo guztiak daude ordezkatuta) **hausnarketa estrategiko bat** egin da, honako arrisku hauek identifikatzeko:

a) Aktiboen eta pasiboen kolektiboek hurrengo urteetan espero duten bilakaera.

b) Etorkizunera begira espero diren errentagarritasun-espektatibak errotik aldatzea epe ertain eta luzera.

c) Pentsio-sisteman aurreikusten diren arau-aldaketak



## Renovación de los órganos de gobierno de la entidad para el periodo 2020-2023

De conformidad con lo establecido en el artículo 24 de los Estatutos de la Entidad, las Instituciones Públicas y de las Centrales Sindicales iniciaron, a finales de 2019, el proceso de designación de las y los delegados que les correspondían.

En la Junta de Gobierno celebrada el 18 de diciembre de 2020, se acordó ratificar el Informe emitido por el Comité de Nombramientos y Retribuciones, sobre la evaluación de la aptitud y honorabilidad de la Junta de Gobierno.

## OTRAS LÍNEAS DE ACTUACIÓN

Como miembros de la Asociación Europea de Instituciones de Pensiones del Sector Público (EAPSPI) y con representantes tanto en el Consejo de Dirección como en la Secretaría General, Elkarkidetza ha podido mantener contacto de primera mano con la actualidad europea en el campo de las pensiones.

Se ha realizado la **auditoría de recertificación a la norma UNE-ISO/IEC 9001:2015**, del Sistema de Gestión de Calidad de ELKARKIDETZA EPSV en noviembre, donde se evaluó el grado de cumplimiento respecto a los requisitos especificados en la norma de referencia y cuyo resultado fue satisfactorio. Bureau Veritas manifestó que se observa un sistema maduro, práctico y bien implantado. Se logró con cero no conformidades.

Además, el año 2020 se caracterizó por trabajar en la revisión y mejora de la metodología de la **gestión de riesgos**, y en la Adecuación del Texto Refundido: **Política de Buen Gobierno, Gestión de riesgos Y Cumplimiento normativo**. En la Junta de Gobierno de 18 de diciembre de 2020 se aprobó por unanimidad, el nuevo Texto Refundido.

Como se ha adelantado, este año se ha realizado un esfuerzo en la gestión de riesgos, y en el Comité de Gestión Avanzada (donde está representado la totalidad de las áreas de la Entidad), se ha abordado una **Reflexión estratégica**, donde se han identificado los siguientes riesgos:

a) La evolución esperada de los colectivos de activos y pasivos en los próximos años.

b) La radical transformación de las expectativas de rentabilidad esperada a futuro a medio y largo plazo.

c) Los previsibles cambios regulatorios en el sistema de pensiones

## Aktiboa Activo

| Aktiboa Activo | 2020 |
|---|---|
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk<br>Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 75.263 |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak<br>Activos financieros mantenidos para negociar | 327.459 |
| Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk<br>Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | 546.847 |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak<br>Préstamos y partidas a cobrar | 2.863 |
| Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak<br>Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 207.001 |
| Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan<br>Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 8.928 |
| Ibilgetu ukiezina<br>Inmovilizado intangible | 0 |
| Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan<br>Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 53.463 |
| GUZTIRA AKTIBOA<br>TOTAL ACTIVO | 1.221.824 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Pasiboaeta ondare garbia Pasivo y patrimonio neto

| Pasiboaeta ondare garbia Pasivo y patrimonio neto | 2020 |
|---|---|
| Pasiboa<br>Pasivo | |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak<br>Pasivos financieros mantenidos para negociar | 0 |
| Debituak eta ordaindu beharreko partidak<br>Débitos y partidas a pagar | 881 |
| Hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas | 1.182.493 |
| PASIBOA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO | 1.183.374 |
| Ondare Garbia<br>Patrimonio Neto | |
| Funts propioak<br>Fondos propios | 38.450 |
| Mutuaren funtsa<br>Fondo mutual | 9.015 |
| Erreserbak<br>Reservas | 32.269 |
| Ekitaldiaren emaitza<br>Resultado del ejercicio | -2.834 |
| ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PATRIMONIO NETO | 38.450 |
| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 1.221.824 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Emaitzen kontua Cuenta de resultados

| | 2020 |
|---|---|
| Ekitaldiari inputaturiko kuotak, berraseguruko garbiak<br>Cuotas imputadas al ejercicio, netas de reaseguro | 45.274 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak<br>Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 63.679 |
| Beste sarrera tekniko batzuk<br>Otros ingresos técnicos | 151 |
| Ekitaldiko prestazioak, berraseguruko garbiak<br>Prestaciones del ejercicio, netas de reaseguro | -46.095 |
| Berraseguruko beste hornidura tekniko garbien aldaketa<br>Variación de otras provisiones técnicas netas de reaseguro | 821 |
| Ustiapen gastu garbiak<br>Gastos de explotación netos | -2.736 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak<br>Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -35.084 |
| Aparteko gastuak<br>Gastos excepcionales | -41 |
| USTIAPEN EMAITZAK % 2,18KO ERRENTAGARRITASUNA<br>RESULTADOS DE EXPLOTACIÓN - RENTABILIDAD 2,18 % | 25.969 |
| Hornidura aktuarialerako ekitaldiko zuzkidura<br>Dotación ejercicio provisión actuarial | -10.981 |
| Definituriko ekarpen hornidurako ekitaldiko zuzkidura<br>Dotación ejercicio provisión aportación definida | -17.822 |
| EKITALDIAREN EMAITZA<br>RESULTADO DEL EJERCICIO | -2.834 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros



## Estadura tasa, ekitaldiko emaitza-banaketaren ondoren
## Tasa de cobertura después de la distribución del resultado del ejercicio

| PASIBOAK / PASIVOS | 2020 |
|---|---|
| Mutuako funtsa<br>Fondo Mutual | 9.015 |
| Banaketa egin ondoren, erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk<br>Reservas y otras provisiones técnicas después del reparto | 28.701 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 37.716 |
| Pasiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de pasivos | 361.749 |
| Pasiboen estaldura<br>Cobertura de pasivos | 10,426 % |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (% 4)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (4 %) | 6,426 % |

| AKTIBOAK / ACTIVOS | 2020 |
|---|---|
| Aktiboen segurtasun marjina<br>Margen de seguridad de activos | 1.048 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 1.048 |
| Aktiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de activos | 820.431 |
| Aktiboen estaldura<br>Cobertura de activos | 0,128 % |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (% 0,05)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (0,05 %) | 0,065 % |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

Elkarkidetzak, indarrean dauden biziraupen taulak eta gaur egungo errentagarritasun egoerarekin bat datozen interes tipo teknikoa eta pentsioen hobekuntza erabiltzen ditu. Horrela, etorkizunari, aktiboentzat eta onarturiko prestazioentzat arrisku gutxiagorekin aurre egin ahal izango zaio.

Elkarkidetza utiliza las tablas de supervivencia vigentes y un tipo de interés técnico y una mejora de pensiones más acordes con la situación actual de rentabilidad. Permitiendo todo ello afrontar el futuro con menores riesgos para los activos y las prestaciones reconocidas.

## Kontu-ikuskaritza — Informe de auditoría




### Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria de Empleo (la Entidad), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2020, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2020, así como de sus resultados y flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2(a) de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.





## 2021EKO KUDEAKETA PLANA — PLAN DE GESTIÓN 2021

### Ekintza Plana Estrategikoak
Planes de Acción Estratégicos

Barne ALM txosten-eredua egitea, erabakiak hartu ahal izateko, inbertsioari eta betebeharrari dagokienez: erakundearen bilakaeraren azterketa (balantzea, fondo propioak eta kaudimen-maila inbertsioen, hipotesi ekonomikoen, operatiboen eta bazkideen profilaren aurrean).

Elaborar el modelo de informe de ALM interno que nos permita adoptar decisiones, de inversión y de la obligación: análisis de la evolución de la entidad (Balance, Fondos Propios y nivel de Solvencia ante distintos escenarios de inversiones, distintas hipótesis económicas, operativas y de perfil de socios).

2020an egindako Gogoeta Estrategikoaren Txostenari buruzko azterketa. Dagozkion erabakiak hartzeari ekitea, hala badagokio. Bazkide berriak sartzea instituzio berrietan.

Análisis sobre el Informe de Reflexión Estratégica elaborado en 2020. Abordar la toma de decisiones que procedan, en su caso. Incorporar nuevos socios/as en nuevas instituciones.

SPPEEE: Elkartearen egituraren eta funtzionamenduaren eraldaketa estrategikoa.
EAPSPI: Transformación estratégica de la estructura y funcionamiento de la asociación.

Komunikatzeko ekimen berriak bazkide, sindikatu eta instituzioei.
Nuevas iniciativas de comunicación a personas asociadas, sindicatos e instituciones.

Bazkide izan daitezkeen langile gazteenei zuzendutako kanpaina espezifiko bat egitea.
Realizar una campaña específica dirigida a los trabajadores potencialmente socios más jóvenes.

Kudeaketa Digitalaren ereduaren diseinuan aurrera egiteko neurri berriak: tramitazio telematikoa osatzea. Telelanerako baliabideak indartzea. Prestakuntza espezifikoa.
Nuevas medidas para avanzar en el diseño del modelo de Gestión Digital: Complementar la tramitación telemática. Refuerzo de los recursos para el teletrabajo. Formación específica.

Zibersegurtasuna: egon daitezkeen intrusioen analisia egitea, sistemen segurtasun perimetrikoaren konfigurazioan ahuleziak detektatzeko. Babes-mekanismoak indartzea.
Ciberseguridad: Realizar un análisis de posibles intrusiones para detectar debilidades en la configuración de la seguridad perimétrica de los sistemas. Reforzar los mecanismos de protección.

Gizarte-erantzukizun korporatiboaren politika eta ingurumen-politika berriz diseinatzea. Botoa eskuordetzeko sistema bat abian jartzeko azterketa.
Rediseñar la política de responsabilidad social corporativa y política medioambiental. Estudio de puesta en marcha de un sistema de delegación de voto.

Grafiko honetan zehazten da 2021erako **aktiboen arabera zenbatetsitako errentagarritasuna**:

**La rentabilidad estimada por activos** para el año 2021 se detalla en el siguiente gráfico:




Prestazioen Erregelamenduaren 14. artikuluaren arabera, 2021erako administrazio-gastuak honela banakatzen dira:

- Administrazio gastuak: % 0,32
- IKEetan edo AKEetan inbertitzeko komisio inplizituak: % 0,33

Los gastos de administración para el año 2021, conforme al Artículo 14 del Reglamento de Prestaciones, se desglosan en:

- Gastos de Administración: 0,32 %
- Comisiones implícitas en inversión en IIC o ECR: 0,33 %

**2021erako ekarpen eta gutxieneko pentsioen eguneratzea**

Entitatearen erregelamendua aplikatuz, 2021erako zenbatekoak mantentzea erabaki du Gobernu Batzordeak 2020ko abenduaren 18an. Honako hauek dira:

**Actualización de aportaciones y pensiones mínimas para el año 2021**

La Junta de Gobierno del 18 de diciembre de 2020, en aplicación del reglamento de la Entidad, ha decido mantener los importes para el año 2021, que son los siguientes:

**EKARPENAK (14 kuota) Hileko arruntak** **APORTACIONES (14 cuotas) Ordinarias mensuales**

| Taldea Grupo | Oinarriak Bases | 7 % | 6 % | 8 % |
|---|---|---|---|---|
| A1 | 50.712,67 | 108,67 | 126,78 | 144,89 |
| A2 / B | 41.412,00 | 88,74 | 103,53 | 118,32 |
| C1 | 33.973,33 | 72,80 | 84,93 | 97,07 |
| C2 y AP | 28.396,67 | 60,85 | 70,99 | 81,13 |

**Osagarriak** Urteko gehiengoa 4.186 €

**Adicionales:** Máximo anual, 4.186 €

Era berean, gutxieneko zifra horiei eustea erabaki du: 106 euro hilean, 2021ean kapital gisa prestazioa jaso ahal izateko, eta 62 euro hilean, Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotako hileko gutxieneko pentsioa.

Así mismo, ha acordado mantener la cifra mínima en 106 euros mensuales para poder percibir la prestación en forma de capital en el año 2021 y en 62 euros mensuales la pensión mínima mensual recogida en la Disposición Adicional Segunda.





## Gobernu Batzordeak hartutako akordioak

2021eko, martxoaren 26an, **aho batez** onartu zituen **Prestazioen Erregelamenduaren testu bategina** eta 1, 3, 6, 12, 35 eta 36 artikuluen aldaketa.

## Acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno

El 26 de marzo de 2021 aprobó, **por unanimidad** de sus miembros, **el texto refundido del Reglamento de Prestaciones**, y la modificación de los artículos 1, 3, 6, 12, 35 y 36.

## 2021eko apirilaren 20an Batzar Nagusian hartutako akordioak

**Aho batez**, honako hau erabaki zuten:

· Batzar Nagusian zein Gobernu Batzordean ordezkatutako batzordekideen kargu-uztea eta izendapena.

· Gobernu Batzordearen kudeaketa, Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta 2020ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena.

· 2021eko ekitaldirako Kudeaketa Plana, aurrekontua eta administrazio gastuen ehunekoa.

· **Estatutuen** testu bategina eta 1, 2, 7, 14, 15, 16 eta 42 artikuluen aldaketa.

Era berean, jakinarazten dizugu gure web orrian eskura dezakezula informazio zehatza: **www.elkarkidetza.eus**.

Aldaketa horrek **lehentasunezko enpleguko BGAE** izatea dakar.

**Lehentasunezko BGAEa**, Eusko Jaurlaritzak sustatutako eredua da. Euskal Autonomia Erkidegoan borondatezko gizarte aurreikuspena orokortzeko tresnarik eraginkorrena da; izan ere, ekarpenak partekatuak dira, errenta gisa kobratzen da lehentasunez, eta administrazio gastu txikiak ditu.

## Acuerdos adoptados por la Asamblea General celebrada el 20 de abril de 2021

Acordó, **por unanimidad** de sus miembros:

· El cese y nombramiento de los representantes sustituidos en la Asamblea General y Junta de Gobierno.

· La gestión de la Junta de Gobierno, las Cuestas Anuales, el Informe de Gestión y la propuesta de distribución del resultado del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2020.

· El Plan de Gestión, presupuesto y porcentaje de gastos de administración para el ejercicio 2021.

· El texto refundido de los **Estatutos** y modificación de los artículos 1, 2, 7, 14, 15 ,16 y 42.

Así mismo, le indicamos que puede obtener la información detallada en nuestra página web **www.elkarkidetza.eus.**

Dicho cambio supone el acceso a la condición de **EPSV de empleo preferente.**

La **EPSV preferente**, es un modelo impulsado por el Gobierno Vasco. Es el instrumento más eficiente para generalizar la previsión social voluntaria en el País Vasco, ya que las aportaciones son compartidas, se cobra preferentemente en forma de renta, y tiene bajos gastos de administración.

ARRETA
HOBEA IZATEKO
**hitzordua eskatu**

PARA UNA
MEJOR ATENCIÓN
**pide cita previa**

**ARABA/ÁLAVA**
Ramón y Cajal, 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
**Tel.: 945 14 11 41**
araba@elkarkidetza.eus

**BIZKAIA**
Gardoqui, 2
48008 Bilbao
**Tel.: 94 415 55 78**
bizkaia@elkarkidetza.eus

**GIPUZKOA**
Mendeurren Plaza, 6
20006 Donostia-San Sebastián
**Tel.: 943 43 02 56**
gipuzkoa@elkarkidetza.eus

**www.elkarkidetza.eus**